

Asaba zaharren baratzaz orainik

Ramon Saizarbitoriaren *Gorde nazazu lurpean* irakurtzeko modu bat

Lourdes OTAEGI IMAZ

Ramon Saizarbitoriaren nobelagintzaren perspektiban ikusirik, *Gorde nazazu lurpean* egileak bere buruari eginiko apustua irabazten hasia dueneko proba agirikoa da, menderatzen eta gogarago erabilitea lortu baitu *Bihotz bi* nobelakoan ekin zion ahotsaren erregistro hura, *Hamaika Pauso* liburuak bere baitan hartu zuen ibilbidearen gainak hartu ondoren.

Gorde nazazu lurpean liburuan bilduriko bost narrazioek elkarrekin duten lotura-gunea gorputzen desehorzte prozesuaren tematika da, halakoak gertatzen edo alpatzen baitira denetan, eta gora-behera halekin batean pizten dira protagonistengan ehortziak zeuden zenbait obsesio, hain justu ere egileari aztertzea interesatu zaizkion sentimenduak, usteak, irudipenak... Historietako bakoitzean garatzen den argumentua independentea den arren, halako harreman sare bat oharteman daiteke, lehen irakurraldian sumatu egiten den errekurrentzia irudipen bat, geroagoko irakurraldietan ziurtasun osoz igartzen den korrontea antzeman arte.

Izan ere, irudipen hori susmoa eta sorpresa da irakurlearentzat, egile honen obra osoan zehar ere nabaritzen duguna, era bateko eta besteko zantzuen bidez osatzen den sentsazio ziurra bihurtzeraino. Eساتe baterako, zenbait pertsonalak transmigratu egiten dute istorio batetik bestera, bereziki Lasa edo Sedano psikoanalistak *Hamaika Pauso* eta *Rossetiren obsesioan*, eta gudari zaharrak berak ere bulebarreko izkinakoan berari hanka ebaki zion mediko ikaslearen plaka ikusten du Lasa izenez... Gauza bera gertatzen da Bioleta pertso-

nalarekin *Bihotz Bi, Bi Bihotz* eta *Asaba zaharren baratza* oinatzten baititu; Flora eta entziklopedia saltzalleak aldiz, dagoeneko bizi izan dute euren drama *Bihotz bi* (1996) nobelan bestelako eran bazen ere eta euren nortasunean zenbait aldakuntza nabari gertatu badira ere...; "*Gudari zaharraren guda galduak*"eko gudari tertulien giroa agertua zigun lehenagotik ere "*Bihotz bi*" nobelan... Dagoeneko argitaratu diren zenbait kritikoren lanek transmigrazio horien neurria hartua dute eta Interpretazio saloak ere eginak dituzte, literatura modernoaren esparruan autorreferentzia jokabide horren nondik norakoak azalduz.¹ Baina pertsonaiez gain, galak eta argumentuek ere transmigratu egiten dute liburu batetik bestera prismadura berriak hartuaz.

Hala, narrazio hauetan ageri dira *leit motiv* musikal baten gisan aurreko liburuetan landuriko zenbait motibo eta gaiari tratamendu xehea emateko aukera eskaintzen dioten anekdota berriak eta, berez zelebre samarrak diruditen gertakarietan zehar, begiratu ironiko batez gai sare ongi elkar-josia tratatzeko parada hartzen du: horra hor da ezinbestezko heriotza eta haren morfologia esan ezin ahalakoaren tratamendu talgabeara (*Ehun metro, Hamaila Pauso, Asaba zaharren baratza...*) eta hor maitasun harremanaren gaia ere, emakumearekiko maitasunaren ezintasunak eta sexu harremanaren konplexutasunaren osinean jira-bueltaka, hor bakardadearen beldurra hainbat giza harreman oker edo asumitu gabekoren iraupenaren arrazoltzat (*Bihotz bi eta Bi bihotz, Hamaila pauso, edota Marcel Martinen aitatasun ukatua*), hor dirau beti aldi berean maite eta gorroto den guraso autoritarioarekiko harremanetako zauri sarri berriak ere, protagonistetako batzuk nazionalismoarekiko hartuko duten jarrera zigilatuko duenak (*Ehun metro, Bihotz bi, Asaba zaharren baratza*), hor dira, halaber, idazlea eta haren obrarengatiko obsesioa, hutsik egingo ez duen testuaren bilaketa etengabea (*Hamaila pauso, Rossettiren obsesioa*), hor, halaber, errealitatea kontatu ahal izateari buruzko zalantzaren formulazio berria (*Hamaila pauso, Gudari zaharra, Joe Costello...*)...

Gai sare zabal hori da anekdota batzuk eta besteek liburuan zehar neurri batean edo bestean agerian jarriko dutenak, desehortzi

(1) Askoren artean "Ereinkaria" monografikoa, Erein, 2001

egingo dute materia hori, xehe-xehe egin eta argitan jarriko dute, neurri batean aurreko liburuetan egin den moduan. Liburu honen egitura eta antolamenduan, ordea, zentzu eta formulazio berria hartuko dute ene ustez.

Izan ere, egilearen obra jarraitu duen edozein irakurlerentzat ere nabariak diren transmigrazio horiez gain, obra honetan irakurleak errelatuak elkarrekin lotzen dituen ardatza berez *Bihotz bi* (1996) nobelan iragarria dagoen haren beraren senide ote den susmatuko du berehala, han eman baitzion hasiera egileak bere narratibaren berritzeari, berez "*Hamalka pauso*"n dagoeneko muinean zegoena, alegia, euskal errealtateari eta konfliktoari, bere gerrei afektibitatearen adierazpen murriztasunean edota komunikazio emozionalerako ezgaitasunaren testuinguruan aztertzeari.

Iragarria dago *Hamalka Pausoren* muinean indarkeria politikoak norbere barruko heriotzaren pultsioa ahantzarazi eta euskal gizartearen enajenazio kolektiboak gutako bakoltzarengan duen eragina. Agian aski irakurraldi eman gabeko obra Integral hura da gure oraingo mintzagal nagusi den liburu honen eta aurrekoaren iturri eta erreferentea. Obra Integrala dela diot argitaraturiko azken bi liburuen aldean. Hartaz egin diren irakurketa bakanez aski interpretazio alden-duak eman izan dituztenik ezin uka, liburu osatzen duten harletan zela den nagusia erabakitzea nekeza gertatzen dela aditzera emanez, edo bestela, agerian jarriz bertan eragile diren indarrak aski entitate badutela bere hartan nabarmenduak izateko. Edonola ere, hura argitaratu zuenez geroztik atera dituen liburuak nire ustez era xehekatuan helarazi digute liburu hartan modu integralean proposaturikoa eta, ene iduriko, motz-edo uzten dituzte liburuaren irakurraldi absolutu zenbait, hala nola, generazio nobelatza hartzen dutenen interpretazioa, eros-thanatos borrokaren edizio berrizat, nahiz idaztearen ezin, neke eta penez eginiko hausnarketatza. Liburuan nagusitzen diren hiru soka horiek txirikordatzen baitira argumentu Integral hartan, protagonista dramatiko baten joan-etorri fisiko eta psikikoetan mamituriko ondoez sozio-politiko, pertsonala eta eskriturala.

"*Bihotz bi*" nobelan, aldiz, *Hamalka pausoko* iragarpenean garatu egiten da, guda politikoa eta afektiboaren paralelismoa nagusitu egiten da hari nagusitza, eta bi gerra horien erdian kokatzen den protagonistak koldakerkiak jokatzen du bietan, lehendik bere aitak

beste gerran egina duen gisa berean. Oraingoan, *Gorde nazazu lurpean* eleberrian planteamendua zabaldu egiten da, lehengoan baino elementu gehiago hartzen ditu, lehengo liburuetan zeuden zenbait gai errekueratuz, liburuaren edukiak eta hura aditzera ematen duen prosak sakontasuna eta armonia erdiesten ditu.

Inoiz edo behin entzun izan dut Saizarbitoria kontalari aparta bada ere, ez dela estilista bat, eta erantzuna izan ohi da gaur egungo nobelista bat dela, horrek justifikatu bailuen "hizkuntzazaleok" hain gogoko izaten ditugun beste idazle batzuk adina jira-buelta ez erabiltzea, hizkuntzaren beraren apaingarri. Baina prosa hau estilista batena ez bada, zentzu tradizionallean, estilo definitu bati dagokiona bada behintzat. Izan ere, gaur egungo estiloak hitzen bidez eraikitako apalindura erretorikoa atzera utzi baitu neurri handi batean, prosaren naturaltasuna harturik irizpide nagusizat. Beraz, pasartez pasarteko estilismotik, obra osora, liburu edo "makrotestu" osora hedatuko den egitura adierazkorrera aldatu da estiloaren adierazbidea. Jakina, estilo modu berri honen ballabideak eta prozedimenduak ez dira lehengo egileetan bezain nabariak lehen kolpean, baina kritika modernoak identifikatzen diharduen hainbat estrategia narratibotan islatzen da eta horietan agertu da nagusi, hain zuzen ere, nobela honen egilea. Baina ez horretan bakarrik.

Inoren prosa definitzearen zailtasunaz ohartzen naiz, baina esango nuke nobelista honen estiloa, orain zentzu orokorrean hartuta, prezisioari atxikirikoa dela oso, prezisiorik eta zorrotzasunik inon baldin bada. Bere prosa, giza harreman eta motibazio ezkutukoak nahiz agerikoak argitan jartzen dituen lanabes zorrotz hori, ez zitekeen bestelakoa izan, hain justu ere euskal literaturan agertu den lumarik zorrotzenetarikoa, *Hamalka Pauson* frogatu zuen bezala errukirik gabeko sozialak ebakitzeko prest dagoena, eta *Bihotz bin* nahiz *Gorde nazazu lurpean* honetan, aldiz, giza izatearen izari erkinaren erretratu gupidagabeaz batean, zekenkeria guztiekin batean datzan arrazoi gordean ezarri duena fokoa.

Hasi naiz hasi, baina Saizarbitoriaren prosaren zertzeladak ematea ez zait samurra gertatzen. Besteentzat ere halaxe ote den susmatzen hasia naiz eta horregatik da agian hain alpamen urri topatzen gai honi buruz. Halere bereziki dut gogoan Joan Garziak, bere gutzia guztiak egitea debekatua duenaren damuaz, nola utzi zuen alde batera Hegatseko "*Hamalka pauso alferrik?*"-en eginiko alderdi for-

malen alpamena, alpagarrizat azpimarratu ondorez, Saizarbitoriaren prosaren xehetasunerako joera morbidoa, motiboen kondentsazio ezari-ezarikoaren teknika... Joanek berak dioen moduan mami gutxi-koak ez diren errekurrentzia multiple horiek, fetitxeen xehetasunen inguruko itzulinguru gero eta hertsioagoek, motibo jakin batzuen, gertakari, eszena edo espresio jakin batzuen behin eta berriroko tratamenduek kondentsazio fenomeno bat dakarte ondorioztat. Gisa horretan, sentsazioak areagotzen doaz, iragarri soilik egin diren kontzeptzio batzuen inguruko konbikzioa sendotuz, eta ondorioz, osatzen duen harmonia musikalaren gisakoa den efektua eragiten da, ideien harmonia komunikatzeari efektu estetikoaren edertasuna batzen diona.

J. Garziak alpatzen dituen hauez gain, Saizarbitoriaren makrotestuaren estrategia narratiboen deskribapenez diharduten artikuluak ugariak izan dira eta, besteak beste, Mari Jose Olaziregik argitaratu berri du Labayruren "Literatura Kalerak" bilduman horri buruzko artikulu eta hitzaurre sorta.² Ballabide narratiboen erabilera trebe horrek inteligentzia sentsazioa sortzen du, Kortazarrek esan ere esan egiten du "Tipo listoa duk!" (XX. mendeko euskal literaturan 150 orr), edonori liburu horiek irakurritz otu ohi zalona deblauki esanez. Estrategia narratiboen erabilera doitu horrek hartzen duen konplexutasunak eta sortzen duen harridura sentsazioak miretsi ditu kritikoak eta irakurleak... Ia beste ezer ez ikusteraino! Horregatik dira esker-tzekoak J. Kortazarren artikulu bezalako irakurketak (Bitarte 2000) edota J. Garziaren saloa bera (Hegats 1996), are gehiago azken honek isiltasunak inguratu duen liburuaren iruzkin bikaina egiten duelako, baina, era berean, estiloari buruzko beste zenbait zertzelada gutxi alpatuak egiteari uko egiten ez diotelako, hala nola, narratzaileak erabiltzen duen tonu enfasigabea, espanturik gabea, arago, ia gorabeherarik gabekoa den hoztasuna eta objektibismoaren tankera serioaren barrutik doan ironia sorra eta beltza nabarmentzen duelako. Berak alpatzen du era berean, liburuaren egitura tematiko musikalaren garrantzia ere, leit-motiv batzuen erabileraz bilbatua.

Eta zer dago hor alpaturiko horietaz gain, -eta ez da gutxi-, hain karakteristikoa? Bada, Joan Garziak adierazi zuen moduan alferkeria-

(2) Olaziregi, M.J. "Ramon Saizarbitoriaren unibertso literarioa", Labayru Ikastegia, Bilbao, 2001.

rik ez, pazientzia agortezina xehetasunerako, ..., bai berak esandako hura guztia, eta dardararik gabeko eskalpelo zorrotzaren prezisioa gehituko nuke nik, horrek ere bereizi egiten duela. Bere serioan, ikaragarriaren aurreko dardara espantu gabean min eman eta min hartzen duen *Hamaika* pausoko prosa hartako boza, 1996tik hona ironiaren abantailak irabazi eta profitatu nahirik dabil. *Bihotz bin* ahotsak sarkasmo edota irkaltzaren zakartasunik badu ere, dago-neko bidea hartua du *Gorde nazazu lurpean* honetan nagusitasunez erabiliko duen irri galztora. Baina, kasul, seriotasun hartan ironia sorraren irri-karkara entzun zitekeen gisa berean, ez dira intentziorik gabekoak azken liburuotako zenbait zelebreekial

Nolanahi ere, dudarik ez egile honek baduela zer esanik eta dioena irakurlego gero eta zabalagoari interesatzen zalola. Esateko duen hori aditzera emateko bilatzen ari den prosaren modulazioa gero eta naturalagoa, berezkoagoa da, soslalarik galdu gabe, prezisiorik galdu gabe eta inoiz apainkeriatan edo betelanean erori gabe. Hizkuntzaren gozoaren amorez zenbait idazletan nabarmendu litekeen esamoldekeriarik txikienean amilduko den beldurrik ez dago. Idazle honek berak menderatzen du hizkuntza, hizkuntzak ez dio esan nahi ez duenik esanarazten. Hain zuzen ere horixe da prosa horren ezaugarrietako bat, ez-arian bezala ari dela, baina intentziorik handienaz! Horretan dago kakoa, prosa honen klabeetako bat bere kontrolean datza, geroago eta hobeto zehazten den objektiboa iristera bideraturiko estiloaren zerbitzutan egotea.

Eta zentzuari atxiki baino lehen, liburuaren tonu berriari lotuko gataizkio, zeren egile honen prosaren zale den edonork nabari lezake idazlearen begiradari, lehen alpaturiko zorrotzetasuna eta prezisioa izanik ere, inoiz ez zalola faltatu itxurazko lehortasunaren ondoan, Mikel Hernandez Abaltuak (Jakin 1983, 29 zb.) azpimarratu zuen sentiberatasun delgarri hura: hain zuzen ere *Hamaika* pausoko parte batean, Abaltuak Zabalegi/Otaegiren afusilaketa nola kontatu dabilenean dioen moduan hunkidura mota sortzeko modua asmatu nahian ari dela azaltzen duena.

Bada, proportzioan, halako desdramatizazio bat, heriotzaren gaiaren tratamenduan "*Hamaika pauso*"n hain hunkigarria zena begiratu ironikoaz bilakatuz Joan da *Gorde nazazu lurpeaneko* desehorzketen morbositateari ironiaz hurbildu ahal izateko. *Bihotz biko* bi pertsonalaren barrena aztertzean zuen gordintasun eta lakartasun

moduko hura malgutuz joan da oraingo honetan, naroki Ireki diolarik uberka pertsonal molde guztien arrazoi handi nahiz ziztrin eta merkeen espresioari adina, haien premia aitortu gabekoel.

Izan ere, gabezia afektiboekin batera, maitasun sentimenduen Adlerazpenerako zailtasuna eta are ezintasunarekin batera, bestelako gabezia gordeak ere nabarmentzen ari baitira, esaterako, buru-argitasun falta eta erabateko eta besteko "kamustasunak", malezia falta nabariak gauzatzen baitira bereziki besteen biktima izatera daratzen Bovary andrearen bertsoietan, Susana, "*Hamalka Pauso*"koa, "*Bihotz bi*"ko Bioleta edota *Rossettiren obsesioko* Eugenia, *Marcel Martinen aitatasun ukatua* narrazioko Barbara neurri batean...) Aldiz, kamustasun hori falta ez denean, *Bi bihotzeko* Floraren kasuan bezala, edo Marcel Martineko Margarenean bezala, gauzak ez dira hobeak. Blek ere argitasun hori izanik ere, ez dute alderdi hoberik, neurri batean edo bestean ondoan dutenari erdeinuzko tratua emateko joera erakusten baitute... Pertsonala femeninoetan hor utzi behar da alde batera, *Hamalka* pausoko Julia, buru-argitasuna gorabehera axola gutxiko kontua izanik, Iñaki Abaituaren korapiloa ongi nabarmendu duen arren, haren zain egon beste aukerarik egiten ez duena, Juan Garziak ongi nabarmendu zuen Penelope txikia zena...

Tamala emakume horien barrena sekulan ez ezagutu ahal izateal

Nire ustez, batzuk paradigmaticoak dira, agian egokiena litzateke esatea paradigma literarioak dituztela erreferente nagusi eta dagoeneko argitaratu diren zenbait alpamen kritikok Adlerazia dute zeintzuk diren zehazki. Bai, erreferente literarioak dituzte eta askotan "kontzeptu" edo ideia bat "gorpuzten" dutela iruditu ohi zait. Niri behintzat denetan interesgarriena azken Flora, *Gorde nazazu lurpeaneko* "*Bi bihotz*"eko hori egin zait... eta bere amal Ongi hezur-hargizkoak diren emaztekiak dira eta, haien barne-jarduna sekulan aditu ahal izan ez badugu ere, azken liburuko entziklopedia saltzaille horren bidez sumatzen dugu ezberrik gabe pertsonala berri eta taxu nabariko bi, ironiak gora behera, karikatura askorik gabe erretratatuak. Gisa berean maitasun harremanaren gai horretan aldarrika entzugarrienak egiten dituen ere entziklopedia saltzaille hori bera da, berea egiten baitu, besteak beste, emakumeena omen den maitasunaren eta sexuaren bereizteko ezintasunaren aitortpena, emaztea salatzen duelarik hain zuzen ere biak bereizteaz.... Bikote horretan dago, nire

ustez, ordaina emana aurreko narrazioetan agertu diren emazte bikote zenbaitekiko harremanari: Julia/Susana, Bihotz bi-ko antzinako Flora/Bioleta, Victoria/Eugenia... andre emaztea eta andre prostituta-ri... Oraingo Flora eta bere senarra dira planteamendu horri buelta ematen diotenak eta zer pentsa eman behar digutenak. Politikoki korrektoa denik ezin esan behintzat, *Bi bihotz* eta *Bihotz bi* bezalako narrazioetan Flora edota Bioleta bezalako protagonistak moldatzen dituenal Ez da halabeharra izango, jakina, familia barruko tratu txar-
rren gaia puri-purian den garalan emazteaz nola libratu modu konszientean eta inkoszientean diharduten protagonistak hartzen di-
tuelarik eta haien arrazoiak ikusgai egiten salatzen zaigularik aritzea.

Baina jakina, inkorrekotasun horrek ez du inor harritzen, gure artean hori bezain larria den abertzaletasunaren planteamenduan ere eskema itxuraz onartuetatik aldentzen diren testuak baititu idatziak aspalditik, *Ehun metro* nahiz *Aberriaren alde (eta kontra)* saloan eta *Hamaika pauson*, non kritikoen fetitxismoari amore emanez, nabar-
menduko nukeen liburu osoan alpatzen diren hamaika pauso zehatz bakarrak diren Iñaki Abaituak Bartzelonako bizarginaren ulerkortasu-
netik aldentzeko izkinaraino ematen dituenak, euskal herritar guztiak eskema eta ideologia bakarrera erreduzitzen dituen ulerkortasun eta ikuspuntu bakarrarekin identifikatua izatetik aldentzeko.

Eta aberriaren arlo honetara heldu garenez gero, natorren mintzagal dudan liburura eta ezagunena zaidan arlora, Asaba zahar-
rren baratzerara. Liburuaren narrazioen ordenari erreparatu nahi nioke lehenik, *Gorde nazazu lurpean*ko narrazioei hasiera ematen die guda aurretik zuen hura berreskuratu beharrez abiatzen den *Gudari zahar-
raren* historiak eta amaitu, *Asaba Zaharren Baratzako* protagonista den Polikarpok eta Sabinekin Sabino Aranaren behatz-hezurak urpe-
ratzen dituztenean amaitzen da.

Liburuan jasoriko historietako bakoitza hitzez hizko zentzuan ad-
il daitezke eta hala aditzen dira arrunki. Argitaletxeak banaka argita-
ratzeari ere ekin dio, Irakasleak, ikasleak eta dena delako irakurleak liburu "argalagoak" hautatzen dituztelako irizpideari amore emanda, eta berez ere, bakanka ere zentzua atxikitzen dutelakoan. Liburuko narrazioek pasadizo eta anekdotak dioten horixe kontatzen dute, arestian alpatu ditugun zeharreko gai nagusi horiez ehioz Joan bada ere narrazio-ehuna. Beraz, bost narrazio hauek abiapuntua (desehorz-
keta) eta alpaturiko gaien ehun narratiboa dute nabarmenki komuna.

Baina *Gorde nazazu lurpean*-eko zeinu literarioaren egituran testu horiek duten ordenamenduaren norabidearen ondorioz, liburuaren adierazten denak anekdota bakoitzaren mugaz harantzagokoa irakur daiteke, izenburua bera ere irakurbide horretan jarririko seinale dugula.

Lehen hirurak narratzailearen adierazpen justu eta eraginkorra aurkitzeko obsesioak hartzen ditu, hain zuzen ere narrazioa egiteko modu guztiz prezisoa izango dena definitzeko, eta hartan substantziala dena eta eraginkorra dena sumatzeko ahaleginak markatzen ditu.

Izan ere, zer da benetan funtsezkoa, notarioak gudariel kontatzeko eskatzen dien laburpen neutroa ala gudari zaharrak kontatu nahil litzuzkeen xehetasunak eta, hanka-motzaren ustez, Amiano lagunak hainbesteko egokitasunez kontatzen zituen zertzelada hunkigarri haiek guztiak? Benetan ote zen funtsezkoa Eugeniari bidaliriko testuaren formula doi-doi erabiltzea Victoriari maitasuna adierazteko ala, narrazio horren hasieran protagonistak dioen bezala, beste gabe ez ote zen eraginkorrago bere sentimendua deklaratzeko argi eta garbi? Marcel Martin-en historian funtsezkoa da argudiaketa arrazional, zientifiko eta legalaz frogatzea abeslariaren fideltasuna ala Joe Costellok eta Margak intuitzea aski duten eta protagonistak inolaz ere usaindu ere egiten ez duen maitasun eta fideltasun zentzuarri atxikitzea da aski?

Azken bi narrazioak "*Bihotz bi*"ko galari lotzen zaizkio baina modu berriztatuan eta lehenengo zatiko kontatzeko moduaren garrantziaren galari ere erantzuna ematen diote. 1996ko *Bihotz biko* galak, ordea, sintaxi narratibo parataktikoan ageri dira oraingoan, han senar-emazteen arteko gaia ardatz harturik garatzen zen beste gerla-aren gala, biak argumentu berean korapilatuz azkenerako. Oraingo honetan lokailu sintaktikoa ez dago, justaposizioan ageri dira. Biolotaren pertsonaia eta beste zenbait osagal paralelo bihurtuko dira bi gerla horien lotura argumentalaren katenbegi, gizarteko eta bihotzeko bi gerlen paralelotasunaren eta, agian, funtsezko batasunaren lotune. Halaz ere, *Asaba Zaharren Baratz*a narrazioaren azken norabideari esker hasierakoari lotzen zaio liburu osoaren zentzua; izan ere, lehen multzo osoan narrazioa egiteko modu doi-doiaren gala funtsezko ardatza dela ikusten da Polikarporen alta presente egondako Aranaren desehorzte aktan bera ez dela agertzen konpro-

batzen denean, Jemeinen faltsifikazioa dela medio. Horra hor, liburuaz proposatzen dudan irakurketaren ardatzetako bat.

Berriro ere bi gerren gaita da, jakina, guda zibila, izan zena eta berriro ere izan daitekeena; baina oraingo honetan iragartzen dena da iraganaren interpretazio eta "narrazio" okerrak izan direla gure oraingo konfliktuaren sortzaile, gure historiaren ikuspegi interesatu eta partzialak. Azken batean, egia zela den garbi nabarmendu arren, arazoel behar moduko konponbidea ez bilatu nahi izatea, giza harremanetan planteatzen diren arazoel, maila pertsonalekoel nahiz gizartekoel, irtenbide duina emateko zikoiztasuna: gudari zaharren kasuan, esaterako, gobernu demokratikoak irtenbide duina ez ematea urteetako bazterketari pentsioa hartu ahal izateko mila tramite egina-raziz guda galdu izanaren zigorlekua izan zen Burgosera joanaraziz berriro, edota, bestela, irtenbiderik ez ematea afektu espresioari, bakardadearen arazoari aurre ez egitea, ezkon harremanetan maitasun eta konfiantza faltari irtenbide txukunik ez ematea, era berean guraso autoritario eta seme-alaben arteko harreman horri eustea... izan ere, "nora doa gainezka egindako odol hori dena, erailketen odola, gerletako odola, miseriaren odola, eta kartzeletan torturaturiko gizonaren odola, aitak eta amak patxadaz torturaturiko haurren odola?" (*Ehun metro*)

Horiek guztiak konfliktuan dauden harremanak dira eta protagonistek ez diete irtenbiderik ikusten, edo ikusten dutenek ere ez diete ematen. Halaz ere, azken bi narrazioek amaiera "zoriontsuak" dituzte, protagonistek nolabait irtenbidea ematen diote behintzat konfliktuari... Baina amarru sotilean eroriko dira, izan ere, biek itxaropenak jartzen dituzte Violeta/Sabinerekiko harremanetan. Entziklopedia saltzaila behintzat azkar konturatuko da bere emaztearen obsesioak bere obsesioak ere bazirela, Flora faltan duela, azkar konturatuko da Floraren afektu lortu ezin huraxe zela behar zuena, eta ez besterik.

Azken narrazioak, liburua ixteaz gainera, nire ustez, liburu osoa zela literario bat eta bakarra den aldetik duen norabidea zedarritzeko funtzioa du eta hala osatzen da euskal gizarteari eta kulturari oso gertutik atxikiriko klabeetan idatzia dagoen liburuaren ibilbidea: izan ere *Asaba zaharren baratza* deritza azken atalari, Lizardiren poema baten izenburua da liburua ixten duena. Abagunea dut, beraz, aitakia onaz Lizardiren obra poetikoraino osteratxoa egiteko, barka-

garri izango zaidalakoan horretan behintzat nobelei buruzko iruzkine-
tan baino usatuagoa naizenez.

Agian bestetan alpatu gabekoa esateko egokiera izan daiteke
hauxe, alegia, komentatzen ari naizen liburuan dantzan dabilen
afektuen adierazpenean, Lizardik, helduaroan, emaztea eta seme-
alabekiko adierazi maitasuna alde batera uzten badira, Zarauzko
etxeoketara jotzen baitu beti, amonaren etxe huraxe izan bide zen
ama-maitasun gehiena jaso zuen gunea eta amona bere haurtzaro
eta gaztaroan amultsuki hartu zuena. Beste inork ez bezala, antza.
Lizardik beraz, poema honetan bezalaxe, 1929ko *El tema del día*
artikuluari eta *Biotzean min dut* (1929) poemari amona harekiko
afektuaz hitz egin zuen, bai eta azken urteetan andre gaixoak ez
zuela inor ezagutzen, eta, urduritasun handiak joa, Ikaragarriko lana
ematen ziela zaindu behar zutenel, kontrolagaitza zelako bere zora-
menean.

Asaba zaarren baratza poetak amonarekiko enkontru eszena
bat irudikatu zuen: beragana hurbildu eta ez duela ezagutzen ohar-
tzen du, haren bihotzeko haurra izana bazen ere; "zaldun arrotza
baillitza" hitz egiten zion, erdaraz. Halako batean ordea, poetaren
semea hurbildu zaienean, amonak antza hartuta-edo, abegi ezin
argiagoko egiten dio haurrari, poeta bera delakoan, haren "izenez
igurtziz burutik oñetaraino". Jose Mari bera delakoan errezibitu zuen
haren haurra eta euskaraz mintzatu. Horrek bereziki hunkitu zuen
Lizardi. Gertaera horrek, nolabait, "redimitu" egin zuen, belaunaldien
arteko transmisio kate hori hautsi ez izanak salbatu egiten zuen
denboraren joanak desitxuraturikoa. Lizardiren poema poz adieraz-
pen bat da belaunaldien arteko transmisio katea hautsi ez delako eta
bere ustez arriskua gainditzen delako modu horretan. Jakina, Lizardi-
ren poesiaren testuinguruan, lehenik eta behin, transmisio-kate hori
maitasun transmisioa da; eta hori beti gogoan hartu beharrekoa da
poemaren lehen zatian osoan haurtzaroko "orolpen-txoriek" afektuz
eta samurtasunez gozatzen dute baratza, baina horrekin batera hi-
zkuntzaren transmisioaren katea ere bada, herri baten kulturaren eta
tradizioaren transmisio katea adierazirik, irudi sotiltasunez eta errit-
mo armoniaren dohainez, sortzetik beretik.

Bere horretan koherentea eta argia zen eszena horri Lizardik
Sabino Aranaren omenezko ahapaldi bat erantsi zion poesian eta
Euzkadi egunkariko 6. orrian Sabino Aranaren jaiotze-urtemugaren

ostean argitaratu. Ondorioz, *Asaba zaarren baratza* hori hizkuntza transmisioaren pozaldiz lehenera etorri denean, zuhaitz berri bat sortzen da baratz erdian, lehen ikusi gabekoa, antzaldatze une horretan abertzaletasunaren sinboloa dena, "herri-baratzak ezin hilkor egiten dituen" ideologiaren sinboloa. Lizardik berak 1932ko *Biotz-begetan* poema honen oin-oharrean erantsi arazi zuen espresuki zuhaitz horrek abertzaletasuna sinbolizatzen zuela, inork inolako zantzarik ez izateko.

Salzarbitoriaren narrazioaren kasuan, alta-sembleak dira eta ez amona-lobak altaren heriotzaren aurretiko egoeran euren harremanak berriztatera behartuak. Altaren eta semearen arteko harreman autoritarioa izana, gizatasunez antzaldatuz doa, hurbilago egin ditu gaixoaldiak eta elkarren beharra agerian ezarri; horretaz gainera, Sabinoren gorpuzkien desehorztearen galak egokiera sortzen du semeak altarenganako sentimenduak berriztatzeko eta aditzera emateko. Errespetua eta afektua azaleratzeko parada ematen dio eta hunkidura ere bai haren ulertu ezinaren aurrean nahiz heriotzaren aurreko ahuldadean. Bereziki gogoan hartzekoa alta-semblearen arteko harreman horren bilakaera eta antzaldaketa dira, hor dago harremana salbatuko duen elkarrenganako afektu transmisioa.

Gisa berean testuinguru berri horretan kokatzen da aitak semearekin bakean hil ahal izan dadin egotzen dion betebeharra: Sabinoren behatz-hezurak hilobira itzultzea. Jakina, abertzaletasunaren ondarea da aitak semearen eskuetan jartzen duena, baina harentzat, bizitzan zehar ezagutu dionagatik eta azkenean Sabinoren desehorzketa dela eta Jemeinen aktarena dela medio, abertzaletasun hori ez da heroikoa eta noblea, giza-motibazio ziztrin batzuen menpe dago, besteak beste.

Narrazioaren arabera Jemeinek egin omen zuen iraganaren faltsutze horrek pentsa liteke euskal historian eginiko beste hainbat faltsutze ordezkatzeko dituela, iragan handiosa eraiki nahia salatzen duela. Bestalde, hor dago susmoa baino gehiago dena ere, aitak ezin sinetsi duen baztertze soziala, semeak ondo baino hobeto narraitzen duena: abertzaletasunean ere klaseak izan, badirela, alegia.

Horregatik, protagonista Sukarrietara Joan eta kontuari ahalik eta amalerarik duinena ematera joaten denean (altaren izen ona belztu beharrik izan gabe, hautsak harrotu gabe...) Lizardiren poemakoa bezalako topaketa egingo du. Sukarrietako hilerria, Lizardiren baratza

bezala, oso utzia dago, Sabinoren hilobia inolako apaingarririk gabe... baina han topatu du Sabiñe edo Violeta eta inork ez dakieela nola, elkar ezagutu egiten dute. Hitzik esan gabe komunikatzen dira... Hala, Violeta/Sabine eta Polikarpok eztabaidatu beharrik izan gabe, badakite ez dituztela lurpean sartuko Sabinoren eriliak, urperatu egingo dituztela Mundakako Itsadarrean, abertzaletasunarentzat balore sinboliko nabaria duten koordinada zehatzak gurutzatzen diren tokian.

Hori eginda, protagonistak pisu astuna gainetik kenduta bezala, deskantsu ederra hartzen du, paisalari begira egon nahi luke luzaroan... Baina lehorrera itzuli orduko, eta ustez arindua doanean, konpromiso berri bati lotu beharrean suertatzen da berehalakoan, izan ere Bioletak paper zati bat eskainiko baitio zerbait idatzl dezan bere erlikario hustuan gordetzeko, berak beste hainbeste egiten duelarik, eta hona hemen non gaineratu zalon Floraren itzala lehen aldiz Polikarpori! Berak "Zu zara nire aberria" idatzl du.

Jakina, esaldi honen zentzua orokorra izan liteke, bien artean sortzen ari den maitasun sentimendu horri bakarrik atxikitzen zalola deklaritzen du agian eta pentsatzen duela horrek ordezkia lezakeela nolabait lehenago Sabinoren hezurtxoek aitarentzat sinbolizatzen zuten abertzaletasunarekiko atxikimendua. Hala ere, komeni da go-goan hartzea Saizarbitoriak esan izan duela elkarrizketa batean edo bestean berak aitortzen duen aberri bakarra euskararena dela. Beraz, horretan Lizardiren poemaren eta Saizarbitoriaren testuen irakurketa sinbolikoa paraleloak dira maitasunaren eta euskararen aberrien aldarrikapenean. Ezberdintasun nabaria dago, jakina, bien artean, zeren Saizarbitoriaren protagonistak abertzaletasunaren zuzaltzairen itzalari uko egin baitio, hautsik harrotu gabe bada ere.

Halabeharrenean legea makurra da ordea, eta haren simetria Joycearrak maite dituenarentzat are makurrago! Lizardiren poemaren sortze garaira itzuliz gero, susma daiteke Lizardiren *Asaba Zarren Baratzako* aitorenak ere K.Jemeinekin izan zuela zerikusia. 1931eko azaroaren 25ean, Sabinoren jaiotztearen urtemugan, Euzkadi egunkarira "*Sabino poeta*" artikulua bidali zuen Lizardik argitaratzeko. Han erabilitako grafia ez zela zorrozki sabindarra eta aldatketak egiteko baimena eskatu zion Tomas Jayok egunkariaren eta K. Jemainen izenean. Lizardik 1931ko azaroaren 17ko gutunean erantzun zion balezkoa emanez eta zera erantsi zuen: "*En cuanto a*

mi actuación general, es natural que quiera conservar mi libertad de acción en materia opinable, quizá aún no definitivamente fijada. Ahora bien, creo que la cuestión s-z, por ejemplo, es de importancia muy secundaria, y que no debemos hacerla consubstancial con nuestra veneración por Arana Goiri, quien será siempre providencialmente grande para Euzkadi por eso más o menos. Es ésa mi muy sincera opinión que espero no me hace sospechoso de antisabinismo."

Lizardiren Iritziel erantzunez, 1931ko azaroaren 23ko Jemín'dar Keperinen gutuna Iritsi zitzaion puntuz puntu erantzunez "materia opinable" eta "cuestion secundaria" bezalakoei. Bestalde, "sospechoso de antisabinismo" neurri batean bazela adierazten zion, izan ere bere Iritzi askatasun horrezaz, "romper la unidad, suscitar discrepancias, armar confusión" egiten omen zuen eta hitz batean Sabinok esandakoa abertzale orok bere osotasunean onartu beharrekoa zela baitetsi zuen: "Pues no se pueden admitir esas modificaciones por razones de importancia secundaria, máxime si provocan escisiones en el seno del Partido Nacionalista". Eta gutun honekin batera Arana-Goiriren lan argitaratuen bilduma bidali zizkion Bizkai Buru Batzarretik, hain zuzen ere, "Euzkadi" izena zer-nola erabaki zuen azaltzen zutenak.

Lizardik gutuna erantzuteke eduki zuen zenbait egunez eta, azkenik, ohar laburtzua lgorri zion eskerrak emanez, "...eztizut oraindañoan erantzun. Azketsi. Gaur ere, ezer gutxi esan dezazuket, baña bederik eskarrak eman bear dizkizut bidali didazun idaztiarengatik. Aleginduko naiz, arteka-marteka, ta alako lanei zor zaien axolaz, idazti ori irakurtzen eta ausnartzen". Hain zuzen ere, erantzun hori bidali eta egun gutxiren buruan argitaratu zuen *Euzkadi* egunkariak "Asaba zaarren baratza" izeneko poema 1931ko abenduaren 6an, seiagarren orrian. Grafia ez zen sabindarra oraingoan ere, baina Sabino Arana Goirik euskararen gailari eginiko aportazioaren aitortza espresoa egiten zuen: "Ta leen ikusi-gabeko/ zuaitz berri bat zegoan/ erdian, guzien buru.../ Aren gerizak erri-baratzak/ ezin-ilkor egin ditu". Eta modu horretan poeta haurrak izandako maltasunaren transmisioaren gertalekua izan zen amonaren baratza, euskararen transmisioaren eta katearen jarraipenaren eszenategia zen asaba zaharren baratza hura bilakatu zuen konpromiso abertzalea adierazteko gunea. Hor, bada, Euskal Herriaren sinbolo abertzalea bihurtu

Lizardik, bere garaiari orokorrean eta guda ostean ere euskaraz garaturiko kulturaren produkzioaren eremua izendatzeko erabili ohi zen "euskaraz baratza".

Lizardiren poemakoa da Salzarbitoriak harturiko baratza, ez Pizkunde garaikoa, eta ez Koldo Mitxelenak alpurtxurikoa. Euskal Herria, euskara eta abertzaletasunaren ondarea dira azken erretatu horretan mintzagailu eta konkretuki, Sukarrietako hilerria den baratza horretatik alde egiten dute protagonistek berarekin daramatzatelarik euren alden abertzaletasunaren lekuko diren erlikiak. Atera egiten dira uri isil hartatik eta uretan joaten utziko diete Sabinoren hezurtxoei.

Nolanahi ere egoera ez dago inolaz ere konponduta. Ironikoki sortuko dira horren zantzuak azken aldera. Izan ere, abertzaletasuna alde batera utzi orduko, berehala, ezertarako astirik gabe, beste printzipio aldarrikapen bat egin behar izan du protagonistak. Egitera beharturik zegoen, jakina, egoeraren larriarengatik: Bioletak (edota euskarak) presa handia dute, joan egin behar dute (galzorian daude) ... Gainera, neskatxak idatzi diona jakin nahi duenean, ezin du, hark berarentzat duen mezu hori ezin du ireki eta zilarrezko tutua ebaki egin beharko luke jakitekotan. Hobe Itxarrotea, badaezpada. Horrek guztiak halako happy end gisako bat egituratzen du, halako misterio gozo batek ukitua...

Ordea kontuan izan behar da Bioleta dela neskatxa hori, *Bihotz Bi* y *Bi bihotz*-eko neskatxa haren izen berekoa, beraz Lizardiren poeman ez bezala, kasu honetan bai, amalera eta zentzua irekita geratzen da baina... Ikuñak ikusita, ez du hain justu ere Polikarporrentzat etorkizun argitsurik iragartzerik... Izan ere aurreko narrazioetan gizonak emakumeekiko harremanetan ezin komunikatua nagusitu bada ere, azken narrazio honetan ia hitzik esan gabe ezagutzen eta aditzen dute elkar, baina apurka-apurka zantzuak sortuko dira eta gogoratu egin behar ezinbestez Florak entziklopedia saltzaillearen mezuen aldean bereetan isurtzera uzten zuen behazunak

Polikarpo dela eta, izenaren inguruko gorabehera luze eta zabal garatzen du narrazioak hasieran eta, beste gabe, izena hainbeste argitu behar horrek segituan jarri behar gintuzke preskizian, dena hainbesteko prezisio geometrikoz neurtzen duen narrazioleak zerbaiterako erabili izango ditu-eta hainbat argibide horren inguruan. Izan ere, pertsonaien deituraren garrantzia handia izan daiteke narrazioen zentzu-eralkuntzan, eta kasu honetan oharteman behar da

Polikarporen deitura Lizardik *Asaba Zaarren Baratza* poema hori eskaini zion Polikarpo Barrenaren izenetik hartua izan daitekeela:

*Barrena'tar Polikarpa, adiskide
min ta abertzale yatorrari, biotzez.*

Polikarporen deiturak berriro tinkatzen du narrazioaren zentzua Lizardiren sinbologiarekiko harremanean. Narrazioan luzaz aritzen da izen horren erabakian aitak erakutsitako kemen eskasaz, azalpen horiek bestalde, aitzakia ematen diote haurtzaroko zenbait pasarte aski tristeak azaltzeko... Baina deitura hori ez da arbitrarioa: Lizardik abertzale jatorra eta bere adiskide mina dela esaten duen pertsonaren izena hartzen du Saizarbitoriak, hain justu ere. Abertzale jatorra zen protagonistaren aitak semea izatea nahilko zukeenaren deitura jartzea ez zuen lortu, baina Sabino ordeaz jarritako Polikarpo deiturak ere abertzaletasunarekin du lotura, hori baitzen, nonbait, bere patua. Tentazioa handia da baina ez naiteke hemen luza Polikarpo Barrena eta Lizardiren artekoaz Jemini buruzkoaz bezainbat. Esan dezadan halere, Lizardik ohiko eskaintza zuela "abertzale yatorra eta adiskide miña"rena, Lauaxeta ere horrela kalifikatu zuen *Biotz-begietanen* eskuzko eskaintza egin zionean. Baina Polikarpo Barrenari eskaini zion "Asaba Zaarren Baratza" momentuko zirkunstantziak hala eskatzen zutelako. Lizardik GBBko lehendakaritza utzia zuen hain zuzen ere Barrenaren eskuetan, baina hau ez zegoen eroso postu horretan eta 1931n behin baino gehiagotan adierazi zion idatziz Lizardiri kargua utzi egin nahi zuela. Azkenekoz, 1931ko azaroaren 5ean gutunez adierazi zion behin betiko kargu-uztea eta honek azaroko 11n erantzun eusteko golarri. Kargua utzi nahi izateko arrazola alderdi barruko presioak ziren, Barrenak "talla ematen" ez zuelako-edo: "*Gaurko Euzkadiko ispilluan nere irudia begiratzen detan ba-koitzean txikiago dakust. Gaurko Euzkadik gizon adimen-argidunak, azkarrak, yakintzaz apaindubak, urrutiyak begiratu ta urrutira dakustenak bear ditu*" eta berak ez du berea halakotzat hartzen, "*asmoak aurrera eramateko bear dan gaitasunik nigan ez izaki, ta au neronek, iñork esan gabe, dazagut eta daitort*". Baina Lizardik karguan jarraitu zezan konbentzitu zuen nola edo hala azaroaren 11n eginiko gutunaren bidez eta, horregatik, berak utzitako kargua eta zeregina betetzen zuen Polikarpo Barrena leialari egin zion poema abertzalearen eskaintza.

Kontua da, azken finean, Lizardiren poemako abertzaletasunarekiko kontrastean idatzia dagoela Saizarbitoriaren narrazio hau eta Barrena edo Jemeinek poema horren sorrera garaian izan zuten halabeharrezko zerikusiarren berririk izan gabe, noski. Halere, *Gorde nazazu lurpeango* Polikarpo berriak Lizardiren adiskide min haren "beste abertzaletasuna"ren itzala errespetatu nahi du eta euskararen nahiz maitasunaren aberriari atxikitzen zalo. Lizardiren poemaren arkeologia –desehorzketa?- egin eta gero, nabarmen dakigu Lizardirentzat euskararen katea hautsi ez izana dela berez baratzaren "lehenertzea"ren eragilea eta abertzaletasunaren zuhaltzari berriz, herri-baratza ezin-likor bilakatzeko zeregina dagokiola, ideologiari dagokiola herriaren iraupena ziurtatzea eta bermatzea... Hori Lizardiri dagokionez egia da, baina zer esan Saizarbitoriaren narrazioko baratzaz?

Bada, kontu hauetan begiak xabal-xabal ibili behar dugula dut ikasia eta Baudelairez ongi gogoratuz ohartzen naiz gizakiok sinboloen basoan galduriko haurrak besterik ez garela, ondorioz ez genukeela agian ahortzi behar Polikarpo eta Sabinekin ez dituztela berez Sabinoren bi behatz-hezurtxoak lurpean ehortzi, Mundakako itsasadarrean urperatu baizik, itsas uretan beraz, sinboloetan adituek diotenez, ez lur eta ez aire ez den medio natural horretan, solidoaren eta airearen artekoa den bizitzaren eta heriotzaren artekoa esparru horretan. Hargatik pentsa daiteke lurpean ehortzi ordez uretan ehortzaraziz, agian, aditzera ematen duela Sabinoren desehorztearen lekuko umil eta ahortzi halek kontserbatu zuten abertzaletasunak, haren bi hezurtxoetan sinbolizaturikoak errespetu berezia merezi zuela, eta uretan ehortziz adierazi nahi izan duela, bizitzaren hasiera eta amaiera den medio horretan joaten utziaz...eta ez lurpean gordeaz alegia.

Eta lurpean ez ehortzi izanak irakurketa arretatsua merezi du liburu osoaren kontestuan nire ustez, hain zuzen ere liburuaren izenburuarekin zerikusi zuzena baitu. *Gorde nazazu lurpean* izenburuak hasieran esan dudana bezala, nolabaiteko misterioa gordetzen du bere baitan, zenbait interpretazio salo egin dira baina ez naute asebetetzen, horixe da egia. Liburuaren eskaera horrek nire iritziz zerikusi zuzena du Saizarbitoriaren aurreko nobela bateko galarekin. *Ha-maika Pauson*, Iñaki Abaitua nobelagile baten gorabeherak alpatzen dira eta hark Daniel Zabalegi (Anjel Otaegi)ren afusilaketa kontatzen

du. Heriotza aurreko orduetan ETAko militante hark ez du bere herriarentzako inolako mezurik igortzea lortzen, zalantza egiten omen duelako euskaraz hitzak nola idatzi... Otaegi/Zabalegik mezurik ez idatzi izanak bat egingo du nobelan Abaituak Juliari azken aldiz deitzen dionean mezurik ez utzi nahi izatearekin, horra hor bien arteko paralelotasun berri bat, norik bere aberriarentzat inolako mezurik ez uztea.... Narrazio hartan kontrastea egiten zuen "mezurik ez" horrek Paredes Manot "Txiki", Otaegirekin batean afusilatu zuten beste etakidearen mezuarekin, berez Che Guevarari omen dagozkion hitz hauekin:

*"Cuando muera no me guardéis bajo tierra,
Porque soy viento de libertad".*

Liburu honen izenburuak mezu horrekin harremanetan jarrita, alegia, "ez nazazue lurpean gorde" eskaera horren aurkakoa diosku, eta orduan ondoriozta genezake liburu honetako ildo nagusia lurpean gordea izateko hobe dela. Gehiago konprometitzen banalaz, esango dut, egileak gerra duela gai nagusia eta gerra ez dela askatasun haizea adierazi nahi duela, edo hobeto esanda, gerraren bidez konpondu nahi diren konfliktoen soluzioa ez dela lritenbide aproposalena adierazten duela, norbere baitako nahiz kanpokoak, psikoanaliak eta literaturak nabarmenduriko norbere baitako gerra inzibilak, giza harremanen malla afektiboan eta sozialean pizten diren gerren lritenbidea ez dela indarkeria bidez etorriko.

Jakina, honako interpretazio honek liburuaren irakurketa jakin bat egitea eskatzen du, hain zuzen ere, inposaturiko akta notarialek eta Jermenen akta faltsifikatuek jasotzen duten historiaren bertsiok iraganaren bertsiok kamutsak dira: notarioen preslopean laburbildu eta neutralizaturiko testimonioak edota kronista interesatuek handipuzturiko lekukotzek ez dute hain zuzen ere askatasun haizerik ekartzen. Hortik beraz, eleberri honetako idazle eta istorio kontatzaileen obsesio narratzaileen galak liburuaren hari nagusiarekin duen funtsezko lotura, hortik egilearen estiloaren prezisio eta zehaztasun betebeharrak itzuriezina. Hortik bada, Zientziaren hizkuntzaren zorrotasun eta neutraltasun ahalegina, ia narrazio guztietan Historia, Psikologia, Arteak, Legegintza eta Biologia zientzien nahiz entziklopedietako jakiturien itzala testuen argudiaketa osoan zehar, lehen pertsona mintzo diren protagonista horien jarduera subjektiboak bermatuz ala

kordokatuz. Eta aldi berean, zientziaren mintzairaren prezisioa duen prosa honek bertsoaren erritmoaren armonia ekartzen du gogora, esaldien pausajearengatik, irudien plastizitateagatik edota sentzazioen eta pentsamenduen konpasa, batek ez dakiela nola, elkartu egin direlako. Hala gertatzen da, esaterako, Bi Bihotz-eko eszena nagusian, errebelazioaren unean:

"eta bota egin nion apal-apal:

- Zure amarekin dauden hezurak ez dira zure aitarenak.

Hasieran ez zuen deus esan; begiak biribildu besterik ez zuen egin, eta iruditu zitzaidan Natura bera zegoela hunkiturik. Eta gogoan dut belarriak zuzendu nituela leihorantz, istant bat lehenago txitxarrek ateratzen zuten karranka hots ikaragarria egiaz ahitu ote zen baleztatzearren.

Hainbat gauzaz pentsatzeko astia izan nuen erabateko isiltasun haren pisupean, egoera horietan gogoa ihesean alde batetik bestera salto egiten duen pizti izutia balta. Ziur naiz poztu egin nintzela txitxararen izen zientifikoa ahantzia ez nuelako –oraindik ere ez dut ahantzi: Lyristes plabejus edo Ciclada plebeia-, eta dudarik gabe, udara amaitzear hiltzen dela ere pentsatuko nuen, irakurri nuenetik beti baitatorkit gogora abuztuaren eguzkipean bere karraka hotsa entzuten dudanean. Eta, egiaz, ez da udako beroa, argitasuna eta oparotasun heldua heriotzaren memoria-rekin kutsatzen dituen gauza bakarra.

Gainerakoan testu honek Saizarbitoriaren obraren perspektiban duen lekuari dagokienez ere zerbait esango nuke, estiloari eta tonuari hasiera aldera esanikoel zerbait eranstekotan. Lur Entziklopediaren idazle batek –eta ez saltzaille batek, kasul- literaturari buruzko alean "Literaturaren etorkizunaz" izenburupean idatzi zuena ekarri nahi nuke hona: "Adimeneko bizitza hizkuntzarena besterik ez dela, eta hizkuntza egitura eta hots sare bat dela (...) hori jakiteak, sarritan ernatu du idazlearengan gaiztoa ere izan daitekeen plazer bat, eta mugatu du haren idazkera, Barthesek esan zuen bezala, "aditz iragangaitz" batera: hau da, idazteaz idaztea, idazleak bere burua idazten ikusiz, pentsatzen entzunez, kontzientzia osoz eta obsesi-boki, harik eta idazten diren bizikizunen giza konpromisoak interes guztia galtzen duen arte –gogora ditzagun adibidez, Beckett baten elaberriak, eta gure euskal Beckett Saizarbitoriaren zenbait liburu-,

Arrisku hori gainditzeko, eta literaturak bizirik iraungo badu, ironia unibertsal baten aplikazioa besterik ez da geratzen, idazle arduratsuen kasuan, gauzak kontatzeko eta iritziak emateko desiraren gertatuko dena, beren mundua eta bizitza gainerakoekin banatuz. Horregatik seguraski ez da bukatuko literatura" (167 orr.)

Zer esan orakulua Joan Garziaren ahoz mintzo bada berriro ere? Bada, zalantzarik gabe literatura zaleok zorioneko gabiltzala, izan ere "Ene, Jesus"eko Beckett hark aspalditik egiten baikaitu irakurleok bere munduaren partaide, aski arduratsuki betez bizikizunen giza konpromisoak eskatzen duen neurria, horretarako inoliz utzi ez diolarik bere sosegurik gabeko idazle-protagonisten zereginetan aztarrika egiteari, eta egin ere egiten duela gutxienez ere unibertsaltzat kalifika genezakeen ironiaz. Kasu honetan, gainera, kontatzea bera, behar bezala kontatzearen ardura duelarik hartua narrazioaren funtsa eta habea.